HAZIA MUSIKALA BILBOKO ARRIAGA ANTZOKIAN

Datorren urriaren 1ean, 19:00etan, Hazia musikala aurkeztuko da Bilboko Arriaga antzokian.

Joan den asteartean, Arriaga antzokian bertan egin zen aurkezpenaren prentsaurrekoa, Miguel Angel Laspiur gure lehendakaria buru zela, ALEko bazkide eta Don Jose Mariaren iloba Jesus Mari Arizmendiarrietarekin batera mahai izan ziren, halaber, Gontza Mendibil, musikalaren zuzendari eta gidoilaria, Aritz Salamanca koreografoa, eta Jose Luis Canal, moldatzailea.

Laspiurrek gure Elkartearen aurkezpen labur bat egin zuen, eta adierazi zuen horren helburu nagusia Arizmendiarrietaren pentsamenduaren balioak enpresan eta gizartean aplikatzea dela; ondoren, Arizmendiarrietari buruzko musikal baten ideia noiz eta nola sortu zen azaldu zuen. 2019ko udaberrian, Gontzal Mendibil ALErekin harremanetan jarri zen ARRASATEKO kooperatiben sortzaileari buruzko musikal baten ideia planteatzeko, eta, bi hilabete geroago, Elkarteak erronka onartu zuen, musikala Elkartearen helburuarekin ezin hobeto uztartzen zela iritzita, eta proiektuari ekin zitzaion. Hiru urte igaro dira –tartean, pandemia–, eta hasierako utopia hura egia bihurtu da, eta joan den irailaren 17 eta 18an estreinatu da HAZIA musika ikuskizuna Arrasaten, erabateko arrakastarekin. Gure lehendakariak, azkenik, Bilbo eta Bizkaia osoa HAZIA emanaldira joatera animatu zituen, ikuskizun aberatsa, anitza, alaia eta modernoa delako, eta publikoa erabat harritu, txunditu eta hunkituko duelako.

Ondoren, Gontzal Mendibilek musikala teknikoki konplexua baina oso freskoa eta dinamikoa dela adierazi zuen, eta honela xehatu zuen: haziarekin hasten da, Arizmendiarrietaren agerpen eta zentzua adierazteko, haren haurtzaroa islatuz, Barinaga jaioterrian; ondoren, Arteagako apaiztegira joan zenekoa irudikatzen du, gerra zibileko bizipena, eta Arrasatera eta hango enpresaburuei, gazteei eta emakumearen munduari hurbildu zitzaienekoa; azkenean, ARRASATEKO kooperatiba sarearekin amaitu arte. Mendibilek azaldu zuenez, pandemiak aukera eman dio Arizmendiarrietaren ideietan eta pentsamenduan murgiltzeko, eta harrotasunez aurkezten duen musika ikuskizuna plazaratu ahal izateko.

Aritz Salamancak adierazi zuen koreografiak gaur egungoak eta dinamikoak direla, eta folka, popa, boleroa eta saltsa nahasten direla, euskal dantza tradizionalari ere keinu eginez.

Jose Luis Canalek esan zuen pandemiak eragindako konfinamenduari probetxu atera diotela eta lasai lan egin ahal izan dutela.

Eta, azkenik, Jesus Mari Arizmendiarrietak osabaren obrako bizipen batzuk azaldu zituen labur.

Hauek izan ziren prentsaurrekoan egon ziren komunikabideak: El Correo, Deia, Tele Bilbao, Radio Nervion, Radio Popular, Bizkaia Irratia, Begitu eta Cadena Ser.

Gainera, Onda Cero, Onda Vasca eta Cope irratiek elkarrizketa egin zioten Gontzal Mendibili.